Informazio Aperkaria
Boletín Informativo

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA
2010eko APIRILA

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA
ABRIL 2010

Nº 189 ZK.



# PROZESU JUDIZIAL EZTABAIDATSUAK

# PROCESOS JUDICIALES CONTROVERTIDOS




El Derecho *Internet*

**Mejor, recurra al origen de su confianza**

Desde hace más de 10 años, los jueces confían en las bases de datos de El Derecho en su día a día. Durante estos años, El Derecho ha innovado para dotarles de la mejor herramienta, contribuyendo a aumentar su eficacia. Le invitamos ahora a que aumente la suya. **Descubra por qué los jueces confían en El Derecho.**

**El Derecho, innovando juntos**

ELDERECHO [EDITORES]

ELDERECHO GRUPO EDITORIAL

***www.elderecho.com***

***902 44 33 55***

*Berriro ere, natura jakintsuaren berpizkundeak aldaketak, krisiak, apurketak eta ikusmuga berriak dakartza eta bizitza-sorrera horrek –argiz betetzen gaitu, mementoz behintzat- gainezka egiten ditu esparru publikoan eta juridikoan, konplexutasun izugarriko prozesu judizialekin, hala nola, historian betiko "Gürtel" esango zaion kasua (uhala/gerrikoa alemanez).*

*Auzi hau nonahiko ustelkeriaren aurka judizialki bideratu du komunikabide-izarraren itxurak dituen magistratu aipagarri horietako batek, eta orain magistratu hori beste auzi batean murgilduta dago Falangek aurkeztutako kereila dela bide. Elkarte horren sortzaileak, gogoratzeko modukoak ez diren beste gehiegikeria batzuen artean, mota honetako esaldi "atsegin eta bakezaleak" egin ditu:* ***gure helburuak kasuren batean indarkeriaren bidez lortu behar badira, ez dugu gelditu behar indarkeriaren aurrean, baina dialektika onargarri bakarra ukabilen dialektika da justizia edo aberria iraintzen denean".***

*Beste epaile batek Egunkaria behin betiko ixtea ekarri zuen prozesuko akusatuen onestasunari buruz abiatutako auzia. Itxiera horren eraginez kalte konponezina egin zitzaien langile askori, enplegua galdu baitzuten, auzipetuei, haien jarrerak susmagarriak bihurtu baitziren, eta batez ere –hori dela eta izan zen prozesua aipagarria- egunkari bat itxi zen ekintza adostu baten bidez, neurri horretarako legezko oinarririk izan gabe. Eta horrek atzera egitea eta oinarrizko askatasunak mugatzea esan nahi du.*

***GIZA IZATEAREN AHULTASUNAREN ADIBIDEAK BAINO EZ DIRA, ETA AHULTASUN MORAL HORIEK, KONTRAESAN IDEOLOGIKOAK BIZITZA PRIBATUETAN ZEIN LANEKO JARDUERETAN ADIERAZTEN DIRA.***

*Eta, hala ere, mota horretako zentzugabekeriek eragindako harridura gorabehera, giza izatearen ahultasunaren adibideak baino ez dira, eta ahultasun moral horiek, kontraesan ideologikoak bizitza pribatuetan zein laneko jardueretan adierazten dira.*

*Eta, guztia gorabehera, basakeriarik okerrena gorabehera, unerik txarrenetan, munduko edozein lekutan ahal duten onena emateko prest dauden pertsonak egongo dira beti, bidezko emaitzak ematen dituzten bidezko arrazoien alde, lan duin bat egiteko, lege zuzen bat sortzeko, giza eskubideak defendatzeko, babesten gaituen legea modu bidezko eta moralean aplikatzeko. Beti egongo dira emozionatzeko, inplikatzeko, ezagutzen duten guztia emateko, kasuan kasuko lanean diren guztia emateko gai diren gizon-emakumeak. Haiei eta haiei bakarrik oraingoan, udaberri istilutsuak ia guztioi ekarri digun bizitza-hatsa opatzen diet.*

Una vez mas el renacimiento de la sabia Naturaleza trae consigo el estatus de cambios, crisis, rupturas y nuevos horizontes y esta eclosión de vida- que nos invade y nos llena, al menos por el momento, de luz- nos abruma en el ámbito de lo publico y lo jurídico con procesos judiciales de incalculable complejidad como el que quedará fijado en la historia, para siempre con el nombre de "gürtel "( correa/cinturón en alemán).

Tramas como esta, instruida judicialmente contra la ubicua corrupción por uno de esos notables magistrados con modos de estrella mediática vanidosa y que, sin embargo, resulta ahora imputado en otra causa a instancias de una querella presentada por Falange- cuyo fundador, por cierto, fue autor , entre otras tropelías que no merece la pena recordar, de frases tan "amables y pacíficas" como: **si nuestros objetivos han de lograrse en algún caso por la violencia, no nos detengamos ante la violencia pero no hay mas dialéctica admisible que la dialéctica de los puños cuando se ofende a la justicia o a la patria".**

**SON SÓLO EJEMPLOS DE LA FRAGILIDAD DE LA CONDICIÓN HUMANA, CUYA FALIBILIDAD SE MANIFIESTA, TANTO EN SUS VIDAS PRIVADAS COMO EN EL EJERCICIO DE SUS PROFESIONES.**

Tramas como la arrojada por otro juez sobre la honestidad de los acusados en el proceso por el que se cerró definitivamente el diario Egunkaria, cierre que tuvo como consecuencia el daño irreparable a numerosos trabajadores que perdieron su empleo, a los encausados, que sufrieron la estigmatización de la sospecha sobre sus conductas y sobre todo- lo que confirió al proceso su carácter relevante- el cierre de un periódico a través de una acción acordada sin base legal que sustentara tal medida, con lo que supone de retroceso y limitación de las libertades más fundamentales.

Y sin embargo, a pesar del estupor que tales muestras de sinrazón nos producen, son sólo ejemplos de la fragilidad de la condición humana, cuyas debilidades morales, cuyas contradicciones ideológicas, cuya falibilidad se manifiesta, tanto en sus vidas privadas como en el ejercicio de sus profesiones.

Y a pesar de todo, a pesar de la peor de las barbaries, en los peores momentos y en cada uno de ellos, siempre habrá en cualquier parte del mundo personas dispuestas a dar lo mejor de sí mismas por causas justas que obtengan resultados justos, por la realización de un trabajo digno, por la gestación de una ley correcta, por la defensa de los derechos humanos, por la aplicación justa y moral de la ley que nos ampara. Siempre habrá mujeres y hombres capaces de emocionarse, de implicarse, de entregar todo lo que conocen, todo lo que son en el ejercicio noble y digno de su trabajo. A ellos y sólo a ellos esta vez, les brindo el soplo de vida que nos ha traído, a casi todos, la turbulenta primavera.

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

**Decano** / *Dekanoa*
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción** / *Erredakzio Batzordea*
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores** / *Laguntzaileak*
César Gallastegi Aranzabal
Nahia Llona Fernández
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzárraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

**http://www.icasv-bilbao.com/**
**elboletin@icasv-bilbao.com**

Depósito Legal / *Legezko gordailua*
2.069/1987

banca
personal

bbk

**10 años** de experiencia

Los clientes de
**banca personal bbk**
lo recomiendan

Un gestor/a
**a tu disposición**

Aquí
nos
tienes
bbk

Informazio Aperkaria

Boletín Informativo

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA

2010eko APIRILA

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

ABRIL 2010





**NOTICIAS** 6 ***BERRIAK***

**INFORMACIÓN** 12 ***INFORMAZIOA***
Sentencia del caso Egunkaria — *Egunkaria Kasuko Epaia*

**OPINIÓN** 14 ***IRITZIA***
Si al cerrar los ojos... — *Ebegiak itxita...*

Velocidad de lectura jurídica 17 *Irakurketa Juridikoaren Abiadura*

**EXCURSIONES DE MONTAÑA** 19 ***MENDIKO IBILALDIAK***
Por tierras del "Maquis" Ceferino Roiz "El Machado" — *Ceferino Roiz "El Machado" "Makiaren" Lurretatik*

**JORNADAS** 24 ***JARDUNALDIAK***
Reforma de la Ley — *Atzerritartasunaren Legearen Eraldaketa*

**BIBLIOTECA COLEGIAL** 30 ***BAZKUNEKO LIBURUTEGIA***

**NOVEDADES LEGISLATIVAS** 32 ***LEGEGINTZA BERRITASUNAK***

**SUPLEMENTO CULTURAL** 34 ***KULTUR ERANSKINA***


Nº 189 ZK.

BILBAO

*Espainiako jatorri musulmaneko erkidegoari buruzko ikerketa*

## *IMMIGRANTE MUSULMANEN EHUNEKO 81 ESPAINIAKO OHITURETARA EGOKITUTA DAGO*

***%70ek Espainian pozik daudela esan dute eta %84k beren erlijioa praktikatzeko inolako oztoporik ez duela dio***

*2010eko apirilak 7.- Espainian bizi diren immigrante musulmanen ehuneko 81ek Espainiako bizimodura eta ohituretara egokituta daudela uste dute, Alfredo Pérez Rubalcaba Barne ministroak, Francisco Caamaño Justizia ministroak eta Celestino Corbacho Lan eta Immigrazio ministroak aurkeztutako ikerketaren arabera.*



*Barometroa Metroscopiak egin du laugarren urtez jarraian. Ikerketaren arabera, immigrante musulmanen erkidegoa tolerantea, mendebaldeko ohituretara egokitua eta liberala da, eta musulman horien iritziak eta Espainiako herritarrenak ez dira oso desberdinak.*



*Elkarrizketan parte hartu duten immigranteetatik ehuneko 70ek Espainian oso edo nahiko gustura daudela esan dute; immigranteen %89ren ustez guztiz posible da musulman ona eta espainiar ona izatea; %94ren arabera, guztiok gainerakoen erlijio-sinesmenak errespetatzeko ahalegina egin behar dugu, eta %81en ustez, ez-fededunek pertsona moduan balio bera dute eta sinesmendunen errespetu bera merezi dute.*

*Gainera, ehuneko 87k uste dute erlijio islamikoa demokraziarekin eta giza eskubideekin guztiz bateragarria dela; eta %77k uste dute musulmanek eta kristauek elkar ulertzeko eta errespetatzeko ahalegina egiten dutela. Ehuneko 14k soilik onartu du erlijio desberdinetako pertsonen arteko ezkontza ez duela naturaltasunez hartzen.*

**Estudio sobre la Comunidad Musulmana de origen inmigrante en España**

## EL 81 POR CIENTO DE LOS INMIGRANTES MUSULMANES SE SIENTE ADAPTADO A LAS COSTUMBRES ESPAÑOLAS

**El 70 % dice estar a gusto residiendo en España, y el 84% asegura no encontrar ningún obstáculo para practicar su religión**

7 de abril de 2010.- El 81 por ciento de los inmigrantes musulmanes residentes en España dice sentirse adaptado a la vida y las costumbres españolas, según un estudio presentado por los ministros del Interior, Alfredo Pérez Rubalcaba; Justicia, Francisco Caamaño, y Trabajo e Inmigración, Celestino Corbacho.

Este barómetro, realizado por Metroscopia por cuarto año consecutivo, refleja una comunidad de inmigrantes musulmanes particularmente tolerante, occidentalizada y liberal, y cuyas opiniones no difieren de forma sustancial de las de los ciudadanos españoles.

Entre los entrevistados, el 70 por ciento dice sentirse muy o bastante a gusto residiendo en España; el 89% opina que es perfectamente posible ser a la vez buen musulmán y buen español; el 94 %, que todos debemos esforzarnos por respetar las creencias religiosas de los demás, y el 81 %, que los no creyentes tienen el mismo valor como personas y merecen el mismo respeto que los creyentes.

Además, el 87 por ciento piensa que la religión islámica es perfectamente compatible con la democracia y los derechos humanos; y el 77 % opina que musulmanes y cristianos se esfuerzan por entenderse y respetarse mutuamente. Sólo el 14 por ciento dice no aceptar con naturalidad el matrimonio entre personas de religiones diferentes.

## RELIGIOSOS PRACTICANTES

El estudio refleja una comunidad musulmana en la que el 52 por ciento se define como muy practicante de su religión; el 34% como practicante irregular u ocasional, y el 12 por ciento dice no practicar la religión.

Entre los entrevistados, el 84 por ciento asegura no haber encontrado ningún obstáculo para practicar su religión en España, y el 83 % opina que el Estado debe ser absolutamente neutral en el terreno religioso, sin apoyar ni defender especialmente a ninguna religión frente a cualquier otra.

## RESPETO A LAS INSTITUCIONES

El barómetro elaborado por Metroscopia refleja que la comunidad musulmana inmigrante valora y respeta las instituciones españolas. Así, en un baremo del 0 al 10, las más valoradas son las ONGs (7,3), el Rey (7), el sistema judicial y los jueces (6,5), la policía española (6,5) y el Parlamento español (6,3)

Además, consideran que en los países occidentales hay un alto grado de libertad y tolerancia (72%), se discrimina menos a la mujer (60%), hay menos desigualdades sociales (56%), se respetan más los derechos humanos (55%), se presta más atención a los más pobres y desfavorecidos (43%), hay más ética (37%), y la gente se preocupa más de los demás (36%).

## *PRAKTIKATZAILEAK*

*Ikerketaren arabera, musulmanen ehuneko 52 oso praktikatzaileak dira; %34 noizbehinkako praktikatzaile edo praktikatzaile irregularrak, eta ehuneko 12k erlijioa praktikatzen ez dutela dio.*

*Elkarrizketan parte hartu dutenen ehuneko 84ren esanetan, ez du inolako oztoporik aurkitu erlijioa Espainian praktikatzeko, eta %83ren ustez Estatuak guztiz neutrala izan behar du erlijioan, erlijio bat beste baten aurrean defendatu gabe.*

## *ERAKUNDEAK*

*Metroscopiak egindako barometroaren arabera, musulmanen erkidegoak Espainiako erakundeak baloratu eta errespetatzen ditu. Modu horretan, 0tik 10erako baremoan, hauek dira gehien baloratzen direnak: GKEak, (7,3), Erregea (7), sistema judiziala eta epaileak (6,5), Espainiako polizia (6,5) eta Espainiako Parlamentua (6,3).*

*Horrez gain, musulmanen ustez, mendebaldeko herrialdeetan askatasun eta tolerantzia maila handia dago (%72), emakumeak gutxiago baztertzen dira (%60), gizarte-desberdintasun gutxiago daude (%56), giza eskubideak gehiago errespetatzen dira (%55), txiroei eta beharrizana dutenei arreta gehiago eskaintzen zaie (%43), etika gehiago dago (%37), eta hirugarrenen aldeko ardura gehiago dago (%36).*




¿qué es lo que buscas para tu salud?

Por ser del Colegio de Abogados, **IMQ** te ofrece una asistencia sanitaria a medida para ti y tu familia: médicos a tu elección, sin esperas, clínicas nacionales e internacionales, atención personalizada, rapidez en consultas, centros propios...

**Exclusivo Colegio de Abogados**
desde **39,72 €**/persona/mes

- **Descuentos:** 5% para pólizas con 4 beneficiarios y 10% para pólizas con más de 4 beneficiarios. 5% por pago anual y 3% por pago semestral.
- **Aprovecha las ventajes fiscales** porque los gastos del seguro médico pueden ser decucibles.

Información y contratación
902 311 902
agencia@imq.es
www.imq.es

IMQ
Tu seguro médico

## *BAZKUNAK BESTE BI FOTOKOPIAGAILU ESKURATU DITU*

*Bazkunak beste bi fotokopiagailu eskuratu ditu elkargokideek erabil ditzaten:*

*Lehenengo fotokopiagailua **Buenos Aires kaleko Justizia Jauregian** Bazkunak duen egoitzan ezarri da. Fotokopiagailu horrek **dokumentuak digitalizatzeko** sistema du, eta inprimatu beharrean, kopiak USB memoria batean (erabiltzaileak sartu behar du aukera hau nahi bada) sar daitezke. Era berean, elikagailu automatikoa du espediente judizialak azkar kopiatzeko. Kasu honetan, kopiatu beharreko originalak ondo jarri behar dira eta ez dituzte grapak izan behar, bestela makina ataskatu egin daiteke eta.*

*Bigarren makina **Adingabeen Fiskaltzaren** bulegoan kokatu da, Justizia Jauregiaren eraikinean, Barroeta Aldamar kalea 10 – 8. solairua, eta adingabeen zein auzitan pertsonatuta egon eta adingabe horien espedienteak bakarrik fotokopiatzeko erabil daiteke.*

## ADQUISICIÓN DE DOS NUEVAS FOTOCOPIADORAS POR EL COLEGIO

El Colegio ha adquirido dos nuevas máquinas copiadoras para su uso directo por parte de los colegiados:

La primera de ellas se ha instalado en la sede colegial del **Palacio de Justicia de Buenos Aires**. Esta copiadora lleva un sistema de **digitalización de documentos**, de forma que en vez de imprimirse, las copias pueden se trasladadas a una memoria USB (ésta debe ser insertada por el usuario si se desea esta opción). También incorpora alimentador automático para un rápido copiado de los expedientes judiciales. En este caso se deberá ser muy cuidadosos en que los originales a copiar se encuentran bien colocados y que los mismos no llevan grapas que puedan atascar la máquina.

La segunda de las máquinas se ha instalado en la oficina de la **Fiscalía de Menores**, en el edificio del Palacio de Justicia, C/ Barroeta Aldabar 10 – 8ª planta, y podrá ser utilizada exclusivamente para fotocopiar aquellos expedientes de menores en los que se esté personado en defensa del menor imputado.

## *ATZERRITARREN BULEGOAK AURRETIAZKO ZITA EZARRI DU*

*Atzerritarren arloan oraintsu egindako legegintza-aldaketen eraginez, probintzia honetako Atzerritarren Bulegoaren kudeaketa aldatu behar izan da. Langileak azkar trebatu behar izan dira eta baimen jakin batzuen eskaerak mugatu dira. Horretarako, oraintsu telefono bidezko aurretiazko zita ezarri da **944 509 434** zenbakiaren bidez; internet bidez zita emateko zerbitzua probatzen ari dira oraindik, eta zerbitzu hori abian jartzean behar den moduan jakinaraziko da.*

*Aurretik egunean artatzeko sistema zegoen, eta orain ezarritako sistema berriari esker immigranteari eskainitako arreta erraztu eta hobetu egingo da, itxaronaldiak asko murriztuz. Horrez gain, orain arte sortzen ziren ilara luzeak saihestuko dira.*

*Gogoan izan behar da ez dela aurretiazko zitarik behar informazio orokorra eskatzeko eta erregistroan edozein motatako dokumentazioa emateko.*

## LA OFICINA DE EXTRANJEROS IMPLANTA LA CITA PREVIA

Las recientes modificaciones legislativas en materia de extranjería han obligado a un cambio en la gestión de la Oficina de Extranjeros de esta provincia, que ha comportado la acelerada formación de su personal así como la limitación en la presentación de solicitudes de determinadas autorizaciones, implantándose para ello recientemente la cita previa telefónica en el número **944 509 434** y hallándose en pruebas la cita a través de internet, cuya puesta en funcionamiento y dirección se comunicará oportunamente.

Este nuevo sistema que sustituye al anterior de atención en el día, facilitará y mejorará la calidad de atención al inmigrante reduciendo considerablemente los tiempos de espera y se evitarán las indeseadas colas de espera de turno que se venían produciendo hasta el momento

Se recuerda que no es necesaria la cita previa, tanto para información general como para entrega de cualquier documentación en el registro

## ELIMINACION DEL REQUISITO DE ADSCRIPCION AL TURNO DE OFICIO DE ADMINISTRATIVO PARA LA INCORPORACION A LA ESPECIALIDAD DE EXTRANJERIA

**La Junta de Gobierno del Colegio en sesión del pasado día 25 de marzo ha aprobado que no resulte requisito necesario para la incorporación a la especialidad de Extranjería del Turno de Oficio, el encontrarse adscrito también al turno de Administrativo.**

Si bien resultan imprescindibles los conocimientos de Derecho Administrativo para poder realizar una correcta asistencia en la especialidad de extranjería, se ha considerado que el requisito de adscripción al turno de Administrativo podría crear ciertas disfunciones. Esto es así porque en muchos casos los/as compañeros/as que realizan la defensa de sus clientes en procedimientos de Extranjería no poseen conocimientos en otras materias que abarca el Derecho Administrativo, como pudiera ser urbanismo, ambiental, etc. Ello, puede suponer una traba para la adscripción al turno específico de Extranjería, que se ha querido eliminar para posibilitar que los/as compañeros/as especialistas en esta rama puedan ejercer en la misma.

De este modo, igualmente, los/as colegiados/as que se encuentren en el turno especial de Extranjería, y así lo deseen, podrán darse de baja en el turno de Administrativo, sin que ello colleve la baja en Extranjería.

Esperamos que esta modificación redunde en una mejor gestión de cada uno de los turnos.

## *ADMINISTRAZIO ARLOKO OFIZIOKO TXANDARI ATXIKITZEAREN BETEKIZUNA EZABATZEA ATZERRITARTASUN ESPEZIALITATEAN SARTZEKO*

***Bazkuneko Gobernu Batzordeak, joan den martxoaren 25ean, Ofizioko Txandako Atzerritartasun espezialitatean sartzeko Administrazio arloko txandari ere atxikita egotea nahitaezko betekizuna ez izatea onetsi du.***

*Atzerritartasun espezialitatean laguntza egokia emateko Administrazio Zuzenbideko ezagutzak ezinbestekoak diren arren, Administrazio arloko txandari atxikitzearen betekizunak nolabaiteko disfuntzioak eragin ditzakeela pentsatu da. Izan ere, kasu askotan, Atzerritartasun prozeduretan bezeroen defentsa egiten duten elkargokideek ez dute ezagutzarik Administrazio Zuzenbideari lotutako beste arlo batzuetan, hala nola hirigintzan, ingurumenean, etab. Hori oztopoa izan daiteke Atzerritartasun txanda bereziari atxikitzeko, eta horregatik ezabatu nahi izan da adar honetako elkargokide adituek horretan jardun ahal izateko.*

*Modu horretan, Atzerritartasun txanda berezian dauden elkargokideek, hala nahi badute, bajan eman daitezke administrazio arloko txandan, Atzerritartasun txandan baja eman gabe.*

*Jakinarazpen honen bidez txanda bakoitza hobeto kudeatzea espero dugu.*



## *ENRIQUE ALFONSOREN ERAKUSKETA*

*Pasa den apirilaren 15ean Enrique Alfonsoren **AL MAR** izeneko erakusketa zabaldu zen.*

*Erakusketa hori Bazkuneko EDUARDO ESCRIBANO gelan maiatzaren 28ra arte ikusi ahal izango da.*

## EXPOSICIÓN DE ENRIQUE ALFONSO

El pasado 15 de Abril se inauguró la exposición de Enrique Alfonso titulada **AL MAR.**

La misma estará expuesta en la sala EDUARDO ESCRIBANO del Colegio hasta el 28 de Mayo.





## GUARDIA EN AGOSTO - 2010

Con el fin de resolver el período vacacional habitual de la abogacía, se va a elaborar un listado con aquellos/as compañeros/as **adscritos al Turno de Asistencia al Detenido, Extranjería, Menores y Violencia Doméstica** que deseen cubrir el servicio de guardia del mes de Agosto.

El plazo de inscripción finaliza el próximo **11 de Junio** y las mismas podrán hacerse presentando el boletín una vez cumplimentado, bien entregándolo en las oficinas colegiales, remitiéndolo por fax al nº 94.435.62.01 ó a través de correo electrónico a la dirección **administración@icasv-bilbao.com**.

El impreso se encuentra a disposición de los colegiados en la web del Colegio **www.icasv-bilbao.com**.

## *GUARDIA ABUZTUAN - 2010*

*Legelarien oporraldiak antolatzeko, **Atxilotuari Laguntzeko Txandan, Atzerritarren Txandan, Adingabeen Txandan eta Etxeko Indarkeriaren txandan** dauden eta abuztuan guardia-zerbitzua emateko prest dauden elkargokideekin zerrenda bat egingo da.*

*Izena emateko epea datorren **ekainaren 11n** amaituko da. Horretarako, izena emateko orria bete eta Bazkuneko bulegoetan utzi, faxez 94.435.62.01 zenbakira edo posta elektronikoz helbide honetara bidali behar da: **administración@icasv-bilbao.com**.*

*Inprimakia elkargokideen eskura dago Bazkuneko web orrialdean: **www.icasv-bilbao.com**.*

## PARTICIPACIÓN CUIDADANA ENCUESTA DEL GOBIERNO VASCO SOBRE VIVIENDA

El Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco ha abierto un proceso de Participación Ciudadana en materia de Vivienda a través de la página web de Etxebide. Hay encuestas, foros para colectivos como el nuestro y una sección para preguntar a personas expertas.

La dirección es http://www.etxebide.info (entrar en Etxebide y luego pulsar en el banner/imagen de la derecha).

## *HERRITARREN PARTE HARTZEA EUSKO JAURLARITZAREN INKESTA ETXEBIZITZARI BURUZ*

*Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Herritarrek Etxebizitza arloan parte hartzeko prozesua ireki du Etxebideren web orritik. Inkestak, foroak gure kolektiboarentzat eta beste batzuentzat eta adituei galdetzeko atala.*

*Hau da helbidea: http://www.etxebide.info (Etxebiden sartu eta gero eskuineko banner/irudian sakatu behar da).*


# Rentabienestar le permite disfrutar de un mejor nivel de vida

**¿QUÉ ES Rentabienestar?**
Se trata de una fórmula que permite percibir una renta garantizada de por vida, obteniendo liquidez de la vivienda, a la vez que se continúa disfrutando de ella y sin perder en ningún momento la propiedad de la misma, ni por parte del titular ni de sus herederos.

**¿A QUIÉN VA DIRIGIDA?**
A propietarios de viviendas o inmuebles, mayores de 65 años o con una gran dependencia reconocida por la Administración.

**¿QUÉ VENTAJAS ME OFRECE EL SERVICIO DEL GRUPO COSEGUR?**
Estudiamos cada caso en concreto y, en función de las necesidades, buscamos entre todas las entidades financieras y de seguros aquel producto con las condiciones más óptimas y que mejor se adecúe a cada realidad.
Negociamos y verificamos por Ud. para obtener la mejor valoración y condiciones contractuales.
Además, le acompañamos y asesoramos en todo el proceso hasta la perfecta formalización de la operación.

| | Edad (años) | Valor Tasación Vivienda 300.000€ | 350.000€ | 400.000€ | 450.000€ | 500.000€ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | €/mes | €/mes | €/mes | €/mes | €/mes |
| Hombre | 70 | 500 | 583 | 699 | 798 | 897 |
| Mujer | 70 | 455 | 530 | 643 | 733 | 824 |
| Hombre | 75 | 655 | 770 | 910 | 1.036 | 1.161 |
| Mujer | 75 | 595 | 700 | 829 | 944 | 1.059 |
| Hombre | 80 | 880 | 1.025 | 1.203 | 1.367 | 1.531 |
| Mujer | 80 | 723 | 844 | 1.091 | 1.240 | 1.389 |
| Hombre | 85 | 1.210 | 1.410 | 1.534 | 1.742 | 1.949 |
| Mujer | 85 | 1.090 | 1.136 | 1.393 | 1.581 | 1.770 |

Datos orientativos basados en la estadística de esperanza de vida de los distintos sexos



Rentabienestar
El valor de la tranquilidad
GRUPO COSEGUR

Tel.: 944 165 844 - rentabienestar@cosegur-cs.com - Rodríguez Arias, 6 - 5ª Plta. 48008 Bilbao (detrás del Hotel Carlton) - www.cosegur-cs.com

# EGUNKARIA KASUKO EPAIA

## Zigor Kodearen 129. Artikuluko Kautela Neurriak

# SENTENCIA DEL CASO EGUNKARIA

## Medidas Cautelares del Articulo 129 del Codigo Penal

**Beatriz Barquín Torre.** *Abokatua*/Abogada




***Joan den apirilaren 12an, Javier Gómez Bermúdez, Ramón Sáez Valcárcel eta Manuela Fernández de Pradok osatutako Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko Salaren Lehen Sekzioak Egunkaria kasu ezagunaren gaineko epaia jakinarazi zen.***

*Epaiak egunkariko bost zuzendariak absolbitu eta Juan Del Olmo instrukzioko epaileak 2003ko otsailaren egunkaria ixteko hartutako erabakia zalantzan jartzen du. Hain zuzen ere, itxiera kautela neurri moduan adostu zen.*

*Gogoan izan behar da egunkaria ixtea kautela neurri moduan ezarri zela Zigor Kodearen 129. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta. Orain, egunkaria ixteko agindua eman eta zazpi urte geroago, Auzitegi Nazionaleko epaiak orduko neurria hartzea zalantzan jartzen du.*

*Epaiaren arabera egunkari baten itxiera agintzeko Zigor Kodearen 129. artikuluaren estaldura ez da nahikoa; izan ere, ez da edozein enpresa edo sozietate, ezinbesteko jarduera garatzen duen komunikabidea baita, herritarren oinarrizko eskubideak egikaritzeko bidea baita. Are gehiago kasu honetan, Egunkaria ixteko unean euskaraz osorik argitaratzen zen egunkari bakarra zen eta, beraz, egunkaria ezinbestekoa zen aniztasunaren ikuspegitik, epaian bertan adierazi den bezala.*

*Komunikabideek herritarren eskubideak eta aniztasuna bermatzen dituztela kontuan hartuta, Auzitegiaren ustez idatzizko eguneroko komunikabide bat aldi baterako ixtea, kautela neurri moduan, ez da gure antolamendu juridikoan sartzen eta Konstituzioak ere ez du horrelakorik babesten.*

*Modu horretan, epaian hurrengoa ezarri da hitzez hitz: "aldi baterako eteteak ez du Konstituzioaren estaldura zuzenik, Konstituzioan bahiketa soilik arautzen baita agintari publikoek argitalpenen eta beste informazio-*

**El pasado 12 de Abril se hizo pública la sentencia dictada por la Sección Primera de la Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional formada por Javier Gómez Bermúdez, Ramón Sáez Valcárcel y Manuela Fernández de Prado relativa al conocido caso Egunkaria.**

La sentencia absuelve a los cinco directivos del periódico acusados y deja en entredicho la decisión tomada por el juez instructor, Juan Del Olmo, del cierre del periódico en Febrero de 2.003, cierre acordado como medida cautelar.

Recordemos que el cierre del periódico se decreto como medida cautelar basándose en lo recogido en el artículo 129 del Código Penal. Pues bien, siete años después de que se decretara el cierre, la sentencia de la Audiencia Nacional contradice de forma manifiesta la adopción de dicha medida.

La sentencia establece que la cobertura del artículo 129 del Código Penal para decretar el cierre cautelar de un periódico no es suficiente ,ya qu, no se trata de empresas o sociedades cualquiera, se trata de un medio de comunicación que desarrolla una actividad imprescindible al ser vehículo para el ejercicio de derechos básicos de los ciudadanos. Más en este caso, ya que en el momento del cierre del Egunkaria era el único periódico diario que se publicaba ,íntegramente, en euskera por lo que, su existencia, era fundamental desde la perspectiva del pluralismo, tal y como recoge la propia sentencia.

Debido a esa importante misión de los medios de comunicación como garantes de los derechos de los ciudadanos y de la pluralidad estima el Tribunal que el cierre temporal de un medio de comunicación impreso de periodicidad diaria, como medida cautelar, es de difícil encaje en nuestro ordenamiento jurídico, ni siquiera amparado por la Constitución.

Así, literalmente, se establece que "la suspensión temporal no tiene cobertura constitucional directa,




pues en la Constitución solo se regula el secuestro como injerencia de los poderes públicos en la actividad de publicaciones y otros medios de información, medida, que exige una resolución judicial motivada protegiendo así los derechos relacionados con la libertad de expresión e información (artículo 20.5 y 20.2 de la Constitución española) y prohibiendo todo tipo de censura previa".

Esta sentencia no hace sino confirmar íntegramente la postura jurídica mantenida por nuestro Colegio que ya en el año 2.003 sostuvo que "desde el punto de vista jurídico la medida cautelar de cierre del periódico es ilegitima, inconstitucional, injusta, arbitraria desproporcionada, gravemente lesiva con multitud de personas y grupos ajenos a los hechos investigados que no tienen la obligación jurídica de soportar esos recortes de sus libertades y derechos".

Recordando las palabras expresadas hace siete años resulta evidente que la sentencia dictada por la Audiencia Nacional suscribe punto por punto lo mantenido por nuestro Colegio y utiliza los mismos argumentos para declarar que la medida cautelar de cierre del periódico no tiene encaje en nuestro ordenamiento jurídico, ya que, ninguna norma habilita de manera precisa y directa al juez para suspender, provisionalmente, la actividad de los medios de comunicación.

Lo peor es que han tenido que pasar siete años para que esta tropelía jurídica sea resuelta, y aunque la sentencia es clara y contundente no deja de poner de manifiesto, nuevamente, uno de los males endémicos de nuestra justicia, la lentitud a la hora de resolver los procedimientos, lentitud que padecemos diariamente en el ejercicio de nuestra profesión.

Se habla ahora de posibles responsabilidades y de la manera de cuantificar los daños producidos, pero resulta difícil imaginar la manera de resarcir los evidentes daños causados por una decisión judicial injustificada. Esperaremos expectantes su desenlace.

*bide batzuen jarduera duten esku-hartze moduan, eta neurri horrek ebazpen judizial zioduna behar du, modu horretan adierazpen- eta informazio-askatasunari lotutako eskubideak babestuz (Espainiako Konstituzioaren 20.5 eta 20.2 artikuluak) eta mota guztietako aurretiazko zentsurak debekatuz".*

*Epai horrek gure Bazkunaren jarrera juridikoa erabat baieztatzen du, 2003an adierazi genuenez, "ikuspuntu juridikotik egunkaria ixteko kautela neurria legearen eta Konstituzioaren aurkakoa, bidegabea, arbitrarioa, neurrigabea eta erabat kaltegarria baita ikertutako egitateekin zerikusirik ez duten pertsona eta talde askorentzat, eta azken horiek ez dute betebehar juridikorik askatasun eta eskubideetan murrizketa horiek jasateko"*




*Duela zazpi urte adierazitako hitzak gogora ekarrita, nabarmena da Auzitegi Nazionalak gure Bazkunak esandakoarekin puntuz puntu bat egiten duela eta argudio berberak erabiltzen dituela egunkaria ixteko kautela neurria gure antolamendu juridikoan sartzen ez dela adierazteko; izan ere, arau batek ere ez diolako epaileari gaikuntza zehatz eta zuzenik ematen komunikabideen jarduera behin-behinean eteteko.*

*Okerrena da zazpi urte igaro behar izan direla bidegabekeria juridiko hori ebazteko, eta epaia argia eta irmoa den arren, berriro ere agerian uzten du gure justiziaren gaitz endemiko bat, hots, prozedurak ebazteko geldotasuna. Geldotasun hori egunero-egunero jasaten dugu gure lanbidean aritzean.*

*Orain balizko erantzukizunei eta egindako kalteak kuantifikatzeko moduari buruz hitz egiten da, baina zaila da justifikaziorik gabeko erabaki judizial batek eragindako kalte nabarmenak ordaintzeko modua imajinatzea. Amaieraren zain gaude.*

# *EBEGIAK ITXITA...*

# SI AL CERRAR LOS OJOS ...

**Nerea Laucirica.** *Abokatua*/Abogada

***Batzuetan gelditu egin behar gara, begiak itxi eta gogoeta txiki bat egin bizi, sentitu eta ikasten dugun guztiaren inguruan, gure bizitza pertsonalean zein profesionalean. Bizitza pertsonalak kapitulu luze eta konplexu ugari ekar ditzakeenez, teklatuaren aurrean eseri naiz nire oroimenetik eta barruko zokoetatik gogoeta batzuk berreskuratzeko, hain zuzen ere, emakumea eta bitartekaria izanda, eztabaidarako eta bitartekaritza zabaltzeko bidea eman dezaten.***

**Begiak itxita norbaitek galdetu izan balit zer den niretzat "emakumezko bitartekaria" hitza, konnotazio guztiekin: bitartekaritzako profesionala eta emakumea, "gizonezko bitartekari" hitzetik bereizia, eta horri lotuta esaldi labur bat etortzen zait burura:emozioak adierazteko gaitasuna.*

*Emakumea izatea eta lan hau egitea, nire kasuan gutxienez, "emozionatzeko gaitasun plusa" da. Bitartekari guztiak, gizonezkoak zein emakumezkoak izan, hunkitu egin daitezke istorio pertsonal bat entzutean edo ordura arte aurrez aurre zeuden bi alderdiren arteko topaketa batean parte hartzean; nire ustez, gainera, emakumea izanda gorritu ere egin zaitezke, eta nik negar egiteko erraztasun handia dudanez, batzuetan begiak busti egiten zaizkit eta hori ezin dut konpondu, et amila eta bat argudio bilatu behar dituzu saioa ez eteteko eta onetik ez ateratzeko. Emakumeek gure sentikortasuna erakutsi ahal izatearen herentzia, gaizki ikusita egon gabe, oso lagungarria da bitartekaritzan parte hartzen duten pertsonekin bat egiteko. Lan honek bizitzaren zerizanarekin harremanetan egotea oparitzen dizu: gatazka eta pertsonen barne borroka aurrera egiteko eta gainditzeko.*

*"Gatazka argia eta itzala, arriskua eta aukera egonkortasuna eta aldaketa, indarra eta ahultasuna, aurrera egiteko bultzada eta aurka egiten duen oztopoa da. Gatazka guztiek sormenaren eta suntsipenaren hazia dute" (gerraren artea, Suntzu).*

## ...ZER HAZI UREZTATU NAHI DUGU?

*Zalantzarik gabe, gure hormona-deskargek ez gaituzte gidatu behar eta gure lehen bultzada bideratu behar dugu. Orduan "Adani utzitako saihetsa bilatzen dugu",*

**Hay momentos en los que tenemos que pararnos, cerrar los ojos y hacer alguna pequeña reflexión sobre lo que vivimos, lo que sentimos y lo que aprendemos, tanto en nuestra vida personal como profesional. Como la personal podría suponer en un largo y complicado historial de capítulos y capítulos, me ha sentado teclado en mano, para rescatar de mi memoria y recovecos interiores, algunas reflexiones que, el hecho de ser mujer y mediadora, sirvan al debate y especialmente a la difusión de la mediación.**

*Si al cerrar los ojos, alguien me hubiera preguntado sobre que me inspira la palabra "mediadora", con las connotaciones que tiene: profesional de la mediación y mujer, se me ocurre, como un nexo que las une y, a la vez las distingue de otras como "mediador", una corta frase:la capacidad de mostrar las emociones.

El ser mujer y hacer este trabajo, en mi caso al menos, lleva añadido un "plus de emocionabilidad". Siendo cierto que cualquier mediador, hombre o mujer, puede conmoverse cuando escucha una historia personal o cuando participa en un encuentro dialogado entre dos partes que hasta ese momento estaban enfrentadas; creo que es igual de cierto que, siendo mujer puedes llegar incluso a sonrojarte, y yo que soy de lagrima fácil, siento como en ocasiones se me humedecen los ojos sin poder remediarlo y tienes que buscar mil y una argucias para continuar con la sesión y no peder los papeles. La herencia que las mujeres tenemos de poder mostrar nuestra sensibilidad, sin que esté mal visto, es de gran ayuda para empatizar con las personas que acuden a mediación. Este trabajo te regala la satisfacción de estar en contacto con la esencia de la vida: el conflicto y la lucha interna de las personas por avanzar y superarlo.

"El conflicto es luz y sombra, peligro y oportunidad, estabilidad y cambio, fortaleza y debilidad, el impulso para avanzar y el obstáculo que se opone. Todos los conflictos contienen la semilla de la creación y de la destrucción" (el arte de la guerra, Suntzu).

## ...¿QUÉ SEMILLA QUEREMOS REGAR?

Obviamente no podemos dejarnos llevar por nuestras descargas hormonales, y debemos reconducir nuestro primer impulso. Es aquí "cuando buscamos la costilla que le prestamos Adán", y damos gracias porque, en esto de la mediación, se incluya el concepto "comediación" y además se le añada el carácter de multidisciplinar y mixto.

Esta feliz realidad, al menos en mi equipo, equilibra las sesiones, y evita que los participantes en el procedimiento de mediación puedan sentir alianzas entre sexos, o pérdida de neutralidad de los mediadores por ese motivo.

*Si al cerrar los ojos, alguien me hubiera preguntado sobre que me inspira la palabra “mediada”, con las connotaciones que tiene: participante en un procedimiento de mediación y mujer, se me ocurre como un nexo que las une y, a la vez la distingue de otras como “mediado”, una corta frase:

### ...VALENTÍA PARA EL CAMBIO.

Cuando una pareja acude a un procedimiento de mediación, y la tienes frente a ti en la primera entrevista, escuchas serenamente la historia que ambos cuentan de su convivencia y de los motivos que les han llevado a esa dura decisión, así como de lo que desean y esperan conseguir una vez finalice el procedimiento.



Después de recordarles las premisas que el procedimiento de mediación ofrece y, a la vez necesita, para poder comenzar a trabajar, como son la voluntariedad, la confidencialidad, la imparcialidad del mediador y el respeto entre ellos, se agradece a las partes su elección, por innovadora y por acertada, y además por el valor de romper con los estereotipos aprendidos y de sobra reconocidos en derecho. Me explico: si lo pensamos con un poquito de detenimiento, y atendiendo sobre todo a los mensajes que desde la sociedad se nos lanzan, la mujer y especialmente la que es madre, ante el fin de su convivencia de pareja, puede tener a priori, mucho más que ganar si acude a buscar justicia y soluciones en un Proceso Contencioso, incluso, aunque los resultas no sean la mejor opción para ella.

Iniciar un procedimiento de mediación es un acto de valentía para una mujer porque se negocian acuerdos desde un plano de equidad, donde todos empezamos la “batalla”, sin ventajas y con el mismo equipo de super-

*eta eskerrak ematen ditugu, bitartekaritzaren kontu honetan “bitartekaritzakidetza” sartzen delako eta gainera diziplina askotakoa eta mistoa dela esaten delako.*

*Errealitate zoriontsu honek, nire taldean behintzat, saioak orekatzen ditu, eta bitartekaritza-prozeduran parte hartzen dutenek sexuen arteko itunak edo arrazoi horregatik bitartekarien neutraltasuna galtzea sentitzea saihesten du.*

**Begiak itxita norbaitek galdetu izan balit zer den niretzat “bitartekaritzako emakumezko parte-hartzaile” hitza, konnotazio guztiekin: bitartekartzia-prozedurako parte-hartzailea eta emakumezkoa, “bitartekaritzako gizonezko parte-hartzaile” hitzetik bereizia, eta horri lotuta esaldi labur bat etortzen zait burura:*

### ...ALDATZEKO AUSARDIA.

*Bikote bat bitartekaritza-prozedurara doanean eta lehenengo elkarrizketan aurrean dituzunean, biek elkarbizitzari buruz kontatzen dizuten istorioa eta erabaki gogor hori hartzeko izan dituzten arrazoiak entzuten dituzu, baita prozedura amaitzean zer lortu nahi duten ere.*

*Bitartekaritza-prozedurak lan egiten hasteko eskaini eta behar dituen premisak gogorarazi ondoren, hala nola borondatea, konfidentzialtasuna, bitartekariaren inpartzialtasuna eta elkarrekiko errespetua, alderdiei hautaketa eskertzen zaie, berritzailea eta egokia delako, eta, gainera, zuzenbidean ikastitako eta erabat aitortutako estereotipoak hausten dituelako. Hori azaldu egingo dut: apur bat astiro pentsatzen badugu eta batez ere gizartetik iristen zaizkigun mezuei jaramon eginez, emakumezkoak eta batez ere ama denak, bikote-elkarbizitza amaitzean, a priori, askoz gehiago irabazi dezake auzien prozedura batera jotzen badu justizia eta konponbide bila, ondorioak berarentzat aukerarik onena izan ez arren.*

*Bitartekaritza-prozedura abiatzea ausardia-egintza da emakumearentzat, akordioak ekitatea oinarri hartuta negoziatzen baitira, guztiok "borroka" abantailarik gabe eta biziraupen-talde berarekin. Aukera hau hautatzeak argi uzten du bitartekaritzan parte hartzen duen alderdi bakoitzak etorkizunean familia-harremanei eusteko gogoa duela, bikotea bertan behera geratu arren.*

*Bestalde, justiziak familia arloko auzi batean emakumeari eman ahal dion hasierako abantaila hori azaldu nahi dudan bigarren ausardia-egintzaren aurrez aurre dago. Bitartekaritzan alderdiek erabakitzen dute nola antolatu etorkizuna, funtzionamendu-akordioak bilatuz, biek aita eta ama gisa dituzten eskubide eta eginbeharrak garatu ahal izateko.*



*Bitartekaritza-prozedurari esker mahai gainean jartzen dira elkarbizitza hastean lortu zituzten ibilbidezko akordioak (etxea, seme-alabak zaintzea, lanaldi murriztuak, etxeko lana eta familia-ekonomia antolatzea, enpresa-ekimenak eta lan-aldaketak babestea...), gatazkaren zurrunbiloan ahaztu edo ezkutatu egiten baitira. Azken horiek auzian ez dira behar den moduan baloratzen, bi alderdiek bizitako egoera guztiak aitortzean soilik hartzen dira kontuan negoziatzeko orduan.*

*Ekitatearen ikuspegitik negoziatu behar da, eta horrek, emakumearen kasuan, kulturaren bidez ikasi, ezarri edo barneratutakoa haustea dakar; izan ere, seme-alaben gaineko erantzukizunak elkarbanatzean, historikoki emakumeei lotutako betebeharrak alde batera uzten direla uler daiteke. Gainera, bizimodu propioa eskatzeak eta bere buruarentzat denbora izateko eskubidea eta beharra aldarrikatzeak erruduntasun-sentimendua eragin dezake, eta hori egia izan ez arren, sentipen hori izan dezake.*

*Bitartekaritza-prozedura ausardia-egintza da emakumearentzat, erruduntasun-sentimendua gainditzea eta bere burua aitortzen, maitatzen eta baloratzen hastea baita.*

*Era berean, emakumearentzat ausardia-egintza da guraso-ardura elkarbanatzeak eragin ditzakeen gizarte-aurreiritziak gainditzen direlako eta horrela jokatzea posible dela ikusten delako, ama moduan zein emakume moduan esparru guztietan, eta horrek dakarren guztiarekin; seme-alabek abantaila bikoitza lortuko dute. Begiak itxita*

vivencia. Elegir esta opción pone de manifiesto las ganas de cada mediada, de que en el futuro, se puedan seguir manteniendo las relaciones familiares aunque la pareja haya finalizado.

Por otro lado, esa inicial ventaja que se puede entender que otorga la Justicia a la mujer cuando dirime un Contencioso de Familia, entra en contradicción con el segundo acto de valentía que quiero exponer. En mediación, son las partes quienes deciden como se van a organizar en el futuro buscando acuerdos de funcionamiento que les permitan a ambos, seguir desarrollando sus derechos y deberes como padre y como madre.

El procedimiento de mediación también permite poner sobre la mesa, aquellos acuerdos tácitos a los que llegaron cuando empezaron su convivencia (dedicación al hogar, a los hijos, jornadas reducidas, trabajo doméstico y de organización de la economía familiar, apoyos respecto a iniciativas empresariales y cambios laborales...) que en la vorágine del conflicto quedan olvidados u ocultos, y que, en el litigio, es difícil que se valoren en su justa medida, ya que sólo el reconocimiento de todas las situaciones vividas por ambas partes, será el que los pueda dar carta de naturaleza, a la hora de negociar.

Negociar desde el prisma de la equidad, implica para la mujer, una ruptura con lo culturalmente aprendido, impuesto o interiorizado, ya que compartir las responsabilidades respecto de los hijos, puede vivirse como una cesión o dejadez de las obligaciones que históricamente han ido vinculadas a la mujer. Incluso, reclamar su parcela de vida propia y reclamar el derecho y la necesidad de disponer de tiempo para si misma, puede provocar un sentimiento de culpa que, sin duda alguna, no es cierto, pero que inevitablemente puede llegar a sentir.

Iniciar un procedimiento de mediación es un acto de valentía para la mujer porque supone superar ese sentimiento de culpabilidad y empezar a reconocerse a sí misma, a quererse y a valorarse.

Igualmente es una acto de valentía para la mujer porque supone superar los prejuicios sociales que pueden nacer del hecho de hacer efectiva una coparentalidad responsable, y tener confianza en que sí puede realizarse, además de cómo madre, como mujer en todos los ámbitos y con todo lo que ello conlleva, los/las hijos/hijas van a beneficiarse por partida doble. Si al cerrar los ojos.....

## IRAGARKI TAULA
## TABLÓN DE ANUNCIOS

*BULEGOA ALOKAGAI (instalazio berriak, altzariekin), Epaitegien ondoan. TF.: 944.249.917.*

*FAX ZENBAKIAREN ALDAKETA, IGNACIO GARCIA DE VICUÑA 4226 zk.ko legelariarena; hemendik aurrera 944255699 izango da.*

**SE ALQUILA DESPACHO PROFESIONAL** (instalaciones nuevas y amueblado) junto a los Juzgados. Tlfno: 944.249.917.

**CAMBIO DE Nº DE FAX** del Colegiado IGNACIO GARCIA DE VICUÑA nº 4226 , que pasa a ser 944255699.

# IRAKURKETA JURIDIKOAREN ABIADURA

# VELOCIDAD DE LECTURA JURIDICA

**Javier Galparsoro.** *Abokatua*/Abogado

**El pasado martes los medios de comunicación informan que ¡albricias¡ se hacía público el sumario Gürtel, compuesto nada más y nada menos que por 50.000 folios. Tras facilitarse las contraseñas de acceso al dossier a través de internet , y solo a los procuradores personados en la causa, no habían transcurrido más de dos horas cuando varios medios de comunicación, y por supuesto dirigentes de todos los partidos políticos, en un alarde de inaudita celeridad y precisión, realizaban valoraciones a bombo y platillo del contenido de las actuaciones, extrayendo todo tipo de conclusiones sobre responsables, dádivas, perjudicados, favores, escuchas, víctimas, o simplemente se despachaban con la rimbombante afirmación de que "ninguna aportación nueva se había hecho a lo ya conocido". A lo conocido de un sumario hasta entonces secreto. A voces .Y a veces.**

Estoy muy acostumbrado a la lectura de voluminosos legajos jurídicos. Calculadora y cronómetro en ristre, reflexiono serenamente pero con urgencia sobre el dato cuantitativo –y también cualitativo- que supone en pocas horas absorber este formidable caudal de 50.000 folios, agrupados en 291 tomos, lo que implica que cada tomo se compone de 172 páginas. Es decir, más o menos son casi tres centenares de libros. Que hay que leer, subrayar, entender, ordenar, procesar y resumir. Se me antoja titánica la encomienda.

Añado otros aspectos interesantes de reflexión netamente jurídica. En este caso, la documentación no se ha facilitado en papel sino a través de unas claves de internet, y sólo a las partes personadas: ¿por qué las conocieron entonces tan rápido los periodistas y los políticos si no eran parte? Si alguno de los juristas, políticos, o periodistas fuera un poco torpe -como sería mi caso- necesitaría un tiempo adicional para acceder a las claves y bajar la información adjunta. Y con ese volumen, el ordenata se te queda colgado fijo un par de veces por lo menos, así que otros tantos reseteados no te los quita nadie. El tiempo avanza.

Una vez lograda esta meta, declaro bajo promesa que soy incapaz de leer más de dos folios seguidos en un ordenador, con lo cual evidentemente hubiera procedido a imprimir esos 50.000 folios. La cuestión nada baladí es encontrar impresora que soporte impresión tan impresionante; de cuánto papel podemos disponer sin talar otro árbol; que no se atasque el artilugio aparte del tiempo que tardaría la impresión; el cabreo del dueño de la tienda que tiene que dejar otros trabajos urgentes, y

***Joan den asteartean komunikabideek jakinarazi zuten Gürtel sumarioa publiko egin zela eta 50.000 folio zituela. Txostenean internet bidez sartzeko pasahitzak eman ondoren, auziko prokuradoreei soilik, bi ordutan zenbait komunikabidek, eta nola ez, alderdi politiko guztietako agintariek, bizkortasun eta zehaztapen ezezaguna erakutsiz, balorazioak egin zituzten jardunen edukiaren inguruan, eta mota guztietako ondorioak atera zituzten arduradunei, opariei, kaltedunei, mesedeei, entzuteei, biktimei buruz, edo baieztapen arranditsu hau egiten zuten: "honezkero ezagutzen zena alde batera utzita ez da ekarpen berririk egin". Ordura arte isilpekoa zen sumariotik ezagutzen zena. Ozenki. Behin baino gehiagotan.***

*Ohituta nago paper sorta juridiko mardulak irakurtzera. Kalkulatzailea eta kronometroa eskuetan hartuta, patxadatsu baina premiaz gogoeta egiten dut 50.000 folioko sorta izugarri hau, 291 liburuki, hau da, 172 orrialde liburuki bakoitzeko, ordu gutxi batzuetan irensteari buruzko datu kuantitatiboari –eta kualitatiboari– buruz. Hau da, gutxi gorabehera, hirurehun liburu. Irakurri, azpimarratu, ulertu, antolatu, prozesatu eta laburtu egin behar da. Lan ikaragarria iruditzen zait.*

*Beste gogoeta-alderdi juridiko batzuk gehituko ditut. Kasu honetan, dokumentazioa ez da paperean eman, interneteko gako batzuen bidez baino, eta bertaratutako alderdiei bakar-bakarrik: zergatik izan zuten horien berri horren azkar kazetariek eta alderdi politikoak auziko alderdi ez baziren? Legelari, politikari edo kazetariren bat apur bat baldarra balitz –nire kasuan bezala- denbora gehigarria beharko luke gakoak lortu eta erantsitako informazioa eskuratzeko. Eta bolumen horren aurrean, ordenagailua pare bat aldiz gutxienez blokeatu egingo zaizu eta, beraz, pare bat aldiz ordenagailua berriz piztu beharko duzu. Denbora aurrera doa.*

*Behin hori lortuta, zin egiten dut ez naizela gai ordenagailu batean bi folio baino gehiago jarraian irakurtzeko, eta beraz, 50.000 folio horiek inprimatu egingo nituzke. Baina horrenbeste folio inprimatzeko gai den inprimagailua izan behar da; beste zuhaitz bat moztu beharrik gabe horrenbeste paper eskura izan behar dugu; inprimagailua ez da blokeatu behar, eta inprimatzeko denbora behar da; dendara bagoaz, jabea haserretu egingo da, beste lan batzuk alde batera utzi*



*beharko ditu eta; eta toner litroak eta litroak. Eta oraindik ez dut hitz egin horretarako behar dugun diruari buruz.*

*Ondo. 50.000 folioak inprimatuta, zenbakituta, grapatuta eta koadernatuta ditugu, eta denborak aurrera egiten duen arren, azkenean irakurtzen hasi gaitezke, paper guztiak uzteko armairurik izan ez arren. Baina nik, gainera, agiri juridiko bat irakurtzen dudanean, post-it orritxoak, markatzaile argitsuak, arkatzak, errotuladoreak, gomak, etab. behar ditut alboan. Azken finean, arreta deitzen didan guztia markatzeko eskolako material guztiak. Kontua ez da bakarka irakurtzea soilik, ulertu, aztertu eta ondorioak atera behar dira. Inork ez du esaten eginkizun hori zenbait irakurle eta narratzaileren artean banatu denik.*

*Gero parte-hartzaileen aitorpen eta proba guztiak taldekatu, sailkatu edo nolabait ordenatu beharko lirateke, nire burua –bizitzako eta sumarioko puntu honetan– ez baita gai horrenbeste literatura xurgatzeko, inolako edertasunik ez duena eta ereduzkoa ez dena. Folio gehigarri horiek alde batera utzita ere (izapide hutseko eginbideak eta erabakiak, aitorpen bikoiztuak edo irakurtezinak, akats tipografikoak, etab.), eta irakurketa-maila aurreratuarekin, minutuan gutxi gorabehera 400 hitz irakurrita, kontuak ez zaizkit ateratzen eta erlojua aurrera doa. Eta, gainera, irakurri duzunari buruz idatzi behar baduzu, horretarako ere denbora beharko duzu.*

*Kazetari jakintsu eta adimentsu guztiek, politikariek eta sumarioaren gaineko balorazio sakon eta erabatekoak egin dituzten herritarrek azalpenak eman beharko lizkidakete. Biologikoki ezinezkoa, osasunaren aurkakoa eta juridikoki zalantzazkoa iruditzen zait norbaitek horren epe laburrean, horren arin, horrenbeste agiri aspergarri irakurri ahal izatea.*

*Ez dut sinesten, besteak beste, aldi berean bizitzako ohiko beste jarduera batzuk egin behar izan dituztelako, sorta izugarri hau irakurtzeaz gain. Analistek jan, kaka egin, lo egin, amodioa egingo zuten edo agian Aste Santuko prozesioren batean ere parte hartuko zuten. Niri burutik pasatu ere ez zait egiten komunera, kofradiakide moduan edo bikotearekin Gürtel sumarioaren zati batekin atzera-aurrera ibiltzea, ezkontza eta fedea jokoan jarriko nituzke eta.*

*Azken aitorpena: abokatuetako batek –benetan eta serioan– interneteko gakoak eman dizkidate eta adreilua buru-belarri irakurtzen hasi naiz. Ez dut inprimatu, nire inprimagailuko jarraibide-liburuaren arabera 50.000 gehieneko kopurua da eta ez dut beste bat erosiko. Artikulu hau egin behar nuela jakinda inoiz baino azkarrago nabil, eta 3455 foliora iritsi naiz (20. liburukia). Eguneroko beste eginkizun batzuk ez ditut alde batera utzi, nola ez. Okerrena da lehenengo bi mila folioetan esaten zen gehiena ahaztu egin zaidala eta, beraz, oraindik ezin dizuet edukiari buruzko iritzi argi eta orokorra eman. Argi daukadan bakarra da honek, itxuraz, luzerako "zeresana" emango digula...*

los litros de tóner. Y no he dicho nada todavía de la pasta gansa que nos cuesta la broma.

Bien. Ya tenemos los 50.000 folios impresos, numerados, grapados, y encuadernados, y aunque el tiempo sigue corriendo inmisericorde, podemos por fin empezar su lectura aunque no encontremos una vitrina donde depositar el cargamento. Pero es que además yo cuando leo un documento jurídico necesito tener cerca de mí post-it, marcadores luminosos, lápices, rotuladores, gomas, etc. En definitiva, el genuino arsenal escolar con el que anotar todo aquello que me llama la atención. Se trata no sólo de leer en solitario, sino básicamente de entender, analizar y concluir. Nadie comenta que la ingente tarea se haya repartido entre varios lectores y narradores.

Luego tendría que agrupar, clasificar, u ordenar de algún modo las diferentes declaraciones y pruebas de los intervinientes porque mi cabeza es -a estas alturas de la vida y del sumario- incapaz de asumir tanta literatura , tan poco bella y edificante. Incluso prescindiendo de esos folios que pudiéramos considerar accesorios (diligencias y providencias de mero trámite, declaraciones duplicadas o ilegibles, errores tipográficos, etc.) y hasta con un nivel avanzado de lectura a razón de unas 400 palabras por minuto, no me salen las cuentas y el reloj sigue avanzando inexorable. Y encima, ponte a escribir sobre lo que has leído que también lleva su tiempo.

Todos los eruditos y sesudos periodistas, políticos, e incluso algún aventajado ciudadano que han hecho valoraciones del sumario tan profundas como contundentes, que me lo expliquen porfa. Me parece biológicamente imposible, mentalmente insano, y jurídicamente dudoso, que nadie en su sano juicio haya podido leer en tan poco tiempo, a tanta velocidad, tantísimos aburridos documentos.

No me lo creo, entre otras cosas porque se supone que habrán tenido que realizar simultáneamente otras actividades ordinarias de la vida aparte de deglutir este tocho tan indecente. Los analistas habrán comido, cagado, dormido, hecho el amor, o tal vez participado en alguna procesión de Semana Santa. A mí desde luego en el w.c., de cofrade, o con mi pareja, ni se me ocurre ir con el sumario Gürtel ni siquiera en parte, que me juego el matrimonio y hasta mi fe.

Una última revelación: uno de los Abogados -ahora sí de verdad y en serio- me ha pasado las claves de internet y he empezado a leer concienzudamente el ladrillo. No lo he imprimido porque el libro de instrucciones dice que 50000 es la vida máxima de mi impresora, y no estoy por comprar otra. Sabiendo que tenía que hacer este artículo me estoy dando más prisa de la habitual, y voy ya por el folio 3455 (Tomo 20), porque no he dejado de hacer otras tareas cotidianas, faltaría más. Lo malo es que ya se me ha olvidado de qué iban buena parte los dos mil primeros, así que todavía no me veo muy capacitado para daros un parecer clarividente y global sobre el contenido. Lo único que atisbo es que esto parece que tiene "correa" para rato...

# POR TIERRAS DEL "MAQUIS" CEFERINO ROIZ "EL MACHADO"

# *CEFERINO ROIZ "EL MACHADO" "MAKIAREN" LURRETATIK*

**Jon Zapirain.** *Abokatua/*Abogado



**Maquis:** aquellos combatientes del bando republicano (socialistas, comunistas, brigadistas y nacionalistas) que continuaron luchando tras la Guerra Civil. También conocidos como "los que se echaron al monte".

**Cefereino Roiz "el Machado"**: primer cabecilla de una partida de maquis, llamada "Brigada Machado" y posteriormente "Brigada Picos de Europa".

"El Machado" murió en un enfrentamiento con la Guardia Civil en 1945, cuando se encontraba a mitad de camino entre Sotres y Bulnes, en Pandébano. Y es precisamente en esta zona en la que se desarrolla nuestro itinerario.

Esta excursión nos permitirá conocer, un poco, el **Macizo Central** y el **Oriental de los Picos de Europa** por su vertiente Asturiana. Proponemos dos excursiones de poca dificultad pero muy hermosas y que nos darán la opción de contemplar el Naranjo, conocer la aldea de Bulnes, el Collado de Pandébano y el pueblo de Sotres a 1.050 metros de altitud. Lugares en los que anduvo la "Brigada Machado" .

***Makiak:*** *Gerra Zibilaren ostean borroka egiten jarraitu zuten errepublikarren taldeko borrokalariak (sozialistak, komunistak, brigadistak eta nazionalistak). "Basora jo zutenak" ere esaten zaie.*

***Ceferino Roiz "el Machado"****: "Machado Brigada" eta gero "Picos de Europa Brigada" izeneko makien talde baten lehen buruzagia.*

*"El Machado" Guardia Zibilarekin izandako liskar batean hil zen 1945ean, Sotres eta Bulnes artean, Pandébanon. Eta, hain zuzen ere, gure ibilbidea inguru horretan garatzen da.*

*Txango honi esker,* ***Picos de Europaren erdialdeko eta ekialdeko mendigunea*** *apur bat ezagutuko dugu, Asturias aldea. Zailtasun gutxiko bi ibilaldi proposatzen ditugu, oso ederrak. Naranjo ikusi eta Bulnes herrixka, Pandébano lepoa eta Sotres herria 1.050 metroko altueran ezagutuko ditugu. "Machado Brigadak" zeharkatu zituen lekuak.*

***Bilbo-Sotres (Asturias).-*** *Bilbo (autoa)-Kantabria (mendebaldea) E-70, A-8, A-67 (Torrelavegatik hurbil igaro), E-70, A-8, N 621, 272 irteera, Unquera. Autobia utzi eta seinaleei jarraituko diegu (Picos de Europa). Panes-Arenas de Cabrales-Cangas norabidea. Panesen eskuinerantz egin, ibaia zeharkatu eta Arenas de Cabralesera joko dugu. Panes eta Arenas arteko tartean Picos de Europaren aurreko profil menditsua ikus daiteke.* ***Arenas de Cabrales****; herriaren erdian, ezkerrean desbideratzea ikusiko dugu:* ***Puente Poncebos - Ruta del Cares - Sotres (AS-261)****. Bide hori hartu eta Picos de Europaren erdiko eta ekialdeko mendigunera doan errepidean egongo gara, Asturiasko aldetik.*

*Arenasetik Puente Poncebosera iritsiko gara (6 km). Han Cares ibaia zeharkatu, Bulneseko funikularraren geltokiaren ondotik igaro eta CA-1 errepidetik Sotresera joango gara (10 km), Tielve igaro ondoren.* ***Paisaia zoragarria da****, ikusmenak ezin du guztia bildu, ura errepidearen ondotik jaisten da, Picos de Europako pareta bertikalek inguratzen gaituzte, baina ez dugu despistatu behar, errepidea, ondo asfaltatuta egon arren, estua eta bihurgunetsua baita, eta Picos de Europaren bihotzean sartzen ari baikara. Sotresera iritsi gara. Bilbotik behar den denbora gutxi gorabehera (2,30 h).*

## 1. IBILBIDEA: “LA CANAL DEL TEJO”

***0,00.-*** *Sotresetik, gure ibilgailuarekin,* ***Puente Poncebosera*** *dauden 10 km-ak egingo ditugu berriro. Funikularraren geltokian aparkaleku txiki bat dago “Funia” erabiliko duten turistentzat. Aparkalekura iritsi aurretik, eskuinean, azken bihurgune handiaren aurretik, espazio txiki bat daukagu aparkatzeko, oso praktikoa, batez ere gero Bunesera funikularrean jaistea erabakitzen badugu. Beste aukera batzuk errepidea Cares ibaiaren ondoan edo ibilbidearen hasieran uztea da, baina egunaren eta orduaren arabera auto asko egon daitezke.*

***0,15.-*** *Botak jantzita, argazki-kamera eskuetan eta bastoi bat edo bi, errepidetik Cares ibilbidearen hasierara oinez joango gara. Zentral elektrikoa eta tunel txiki bat igaro eta errepidea Cares ibilbidea hasteko pista bihurtzera doanean, ezkerrean bidezidor txiki bat aurkituko dugu, ibairantz doana; ibaia Jaya zubitik zeharkatuko dugu (Bulnes GR-203). Hemen* ***“Canal del Tejo”*** *izenekoa hasten da.*

***0,25.-*** *Minutu batzuk geroago, Zardo zubia zeharkatuko dugu, eta hemendik aurrera Bulnes ibaia eskuinean utziko dugu beti.*

*Ibilbidea sigi-saga gorantz hasten da, horrela izan behar da, Canal del Tejo edo Texu (asturieraz) izenekoaren hegaletik. Erritmo etengabea ezarri behar dugu, eta horri esker, ikusmenaz gozatu eta noizean behin gelditukо gara, atzean uzten duguna ikusteko.*

*Ibilbide honetatik ez dabil jende askorik, mendizaleek erronka handiagoak bilatzen dituztelako. Turistak Bulnesera Funikularrean igoko dira eta txangozale eta ibiltari gehienek Careseko ibilbidea egiten dute.*

**Bilbao-Sotres (Asturias)**.- Bilbao (coche)-Cantabria (al Oeste) E-70, A-8, A-67 (pasar cerca de Torrelavega), E-70, A-8, N 621, Salida 272, Unquera. Abandonamos la autovía y atravesamos las indicaciones (Picos de Europa). Dirección Panes-Arenas de Cabrales-Cangas. En Panes cruzaremos el río a nuestra derecha y seguiremos dirección **Arenas de Cabrales**. El tramo entre Panes y Arenas refleja el perfil montañoso que precede a los Picos. Arenas de Cabrales, en mitad del municipio, vemos a nuestra izquierda un desvío, dirección: **Puente Poncebos - Ruta del Cares - Sotres (AS-261)**. Lo tomamos y nos adentramos en la carretera que conduce al Macizo Central y Oriental de los Picos de Europa por su lado asturiano.

Desde Arenas llegamos a Puente Poncebos (6 km), allí cruzaremos por carretera el río Cares, pasaremos junto a la estación del Funicular de Bulnes, y por la CA-1 iremos a Sotres (10 km), pasando por Tielve. **El paisaje es increíble**, no podemos abarcar todo con la vista, el agua baja junto a la carretera, las paredes verticales de los Picos nos rodean, pero no debemos despistarnos, ya que aunque bien asfaltada, la carretera es estrecha y sinuosa, y estamos adentrándonos en el corazón de los Picos. Llegamos a Sotres. Tiempo aproximado desde Bilbao (2,30 h).

## ITINERARIO 1: “LA CANAL DEL TEJO”

0,00.- Desde **Sotres**, con nuestro vehículo desandamos los 10 km que no separan de **Puente Poncebos**. En la estación del Funicular existe un pequeño aparcamiento para turistas que van a hacer uso del “Funi”. Justo antes de llegar a él, tenemos a nuestra derecha y antes de la última y muy pronunciada curva un pequeño espacio para aparcar, muy práctico, sobre todo si decidimos bajar luego de Bulnes en Funicular. Otras opciones consisten en dejar el coche en la carretera junto al río Cares y al inicio de su ruta, pero según el día y la hora puede haber muchos coches.

0,15.- Con las botas puestas, la cámara de fotos a mano y uno o dos bastones, nos dirigimos andando por carretera al inicio de la ruta del Cares. Pasamos la Central eléctrica, un pequeño túnel y cuando la carretera se va a transformar en pista para iniciar la ruta del Cares, a nuestra izquierda sale un pequeño, pero evidente sendero que baja al río y lo cruza por el puente de la Jaya (Bulnes GR-203). Aquí se inicia la **“Canal del Tejo”**.

**0,25.-** Pocos minutos después cruzaremos el puente Zardo, para dejar a partir de aquí, siempre a nuestra derecha el río Bulnes.

La senda comienza a subir en zigzag, así debe ser, por la ladera del Canal del Tejo o Texu (en asturiano). Debemos marcarnos un ritmo constante que nos permita disfrutar de la vista y pararnos de vez en cuando, para ver lo que vamos dejando atrás.

No se trata de una ruta muy frecuentada, ya que los alpinistas buscan retos mayores, los turistas subirán a Bul-

nes en Funicular y la mayor parte de excursionistas y caminantes van a hacer la Ruta del Cares.

Nosotros preferimos subir a Bulnes por la canal que constituyó el camino habitual para los habitantes de esta aldea para ir y volver de Arenas de Cabrales hasta le inauguración del Funicular en el año 2.001.

**1,00.-** Llevamos algo más de media hora sudando y viendo como el río Bulnes que hemos cruzado al inicio e nuestro recorrido, se ve cada vez más pequeño a nuestra derecha. Hay que tener cuidado, ya que aunque el camino es suficientemente ancho, el barranco que tenemos a nuestra derecha es impresionante. Si bien, el desnivel se ha dulcificado y el caminar se hace más fácil.



Las dimensiones, las paredes que nos rodean y lo lejos que ahora vemos el río, nos recuerdan el por qué no hay que hacer esta excursión en invierno o con nieve.

**1,15.-** Continuamos caminando, y poco a poco, vemos que el sendero y el río van a unirse de nuevo. En la parte alta de la canal la senda abandona la verticalidad. Pasaremos junto al puente Colinas sin cruzarlo (585 m) y continuaremos por la pista, ahora con muy poco desnivel. Nuestro caminar nos lleva a la estación del Funicular de Bulnes y la pista continúa hasta llegar a la parte baja de Bulnes (645 m).

**1,25.- Bulnes.** Cruzamos el puente y vemos varias terrazas en los bares, cualquiera es apta para tomar algo, refrescarse y reponer fuerzas, ya que aunque breve, la subida ha sido dura.

Bulnes es un pueblo muy antiguo de origen romano. Se supone que fue un puesto avanzado asentado en el barrio de Arriba o del Castillo, donde aún hay una torre. El historiador Sánchez de Albornoz hace mención a la existencia de este pueblo: “por donde los moros pasaron huyendo del desastre de Covadonga”. Llegaron a Bulnes por Amuesa. Subieron a Pandébano, bajaron a Áliva, para ser aniquilados en Cantabria. De ahí que la ruta se conozca como la “Ruta de la Reconquista”.

Si nos encontramos satisfechos con la excursión podemos volver en Funicular, que nos dejará junto al coche que hemos aparcado abajo. Horarios temporada baja: 10,00 h-12.30 h y de 14,00 h-18,00 h. En temporada alta

*Gu Bulnesera herritarrek funikularra 2001ean inauguratu arte Arenas de Cabralesetik joan-etorriak egiteko erabiltzen zuten kanaletik igoko gara.*

*1,00.- Ordu erdi baino gehiago daramagu izerditan eta ibilbidearen hasieran zeharkatu dugun Bulnes ibaia gero eta txikiago ikusten dugu eskuinean. Kontuz ibili behar da, bidea nahiko zabala den arren, eskuineko amildegia ikusgarria baita. Hala ere, malda txikitu egin da, eta ibiltzea errazagoa da orain.*

*Neurriei, inguruko hormei eta ibaiaren urruntasunari erreparatuz, txango hau neguan edo elurrarekin zergatik egin behar ez den ulertuko dugu.*

***1,15.-** Ibiltzen jarraituko dugu, eta apurka-apurka bidezidorrak eta ibaiak berriro ere bat egingo dutela ikusiko dugu. Kanalaren goiko aldean bidezidorrak bertikala izateari uzten dio. Colinas zubiaren ondotik igaroko gara, baina ez dugu zeharkatuko (585 m), eta pistatik jarraituko dugu, malda txikiarekin orain. Bulnesgo funikularraren geltokira iritsiko gara eta pistak Bulnesen azpiko aldera iritsi arte jarraitzen du (645 m).*

***1,25.- Bulnes**. Zubia zeharkatu eta tabernen terrazak ikusiko ditugu. Guztiak dira aproposak zerbait hartzeko, freskatzeko eta indarrak hartzeko; izan ere, igoera, laburra izan den arren, gogorra izan da.*

***Bulnes** erromatar jatorriko herri zaharra da. Arriba edo Castillo auzoan ezarritako postu aurreratua izan zela pentsatzen da, eta leku horretan gaur egun ere dorre bat dago. Sánchez de Albornoz historialariak herri hau aipatzen du: “mairuak bertatik igaro ziren Covadongako hondamenditik ihes eginez”. Bulnesera Amuesatik iritsi ziren. Pandébanora igo, Álivara jaitsi eta Kantabrian suntsitu zituzten. Horregatik, bide honi “Ruta de la Reconquista” esaten zaio.*

*Ibilbidea nahikoa izan dela uste badugu, funikularrean bueltatu gaitezke eta behean utzi dugun autoaren ondora iritsiko gara. Behe-denboraldiko ordutegiak: 10,00 h-12.30 h eta 14,00 h-18,00 h. Goi-denboraldian (uztaila, abuztua eta iraila) 20,00etan ixten da. Hala ere, web orrian begiratu dezakegu, ALSAra deitu (985 84680 telefono-zenbakia) edo ibilbidearen hasieran geltokian ordutegiak ikusi ditzakegu.*

## 2. IBILBIDEA:
## “LA FUENTE, EL PILÓN DE SOTARRAÑA” ETA “PEÑA MAIN”

***0,00.- Sotresetik, ura hartuta**, ibilbidea autoarekin edo oinez hasi dezakegu. Bi kasuetan, ezagutzen dugun errepidetik itzuliko gara eta 500 metro beherago eskuinera egiten duen bihurgune handi bat aurkituko dugu. Bihurgune horretan hiru aukera ditugu: aurrera egitea Tielve-Puente Poncebos-Arenas norabidean (ez dugu hartuko), Alivara doan lurrezko pista hartzea (hegoaldea; hau ere ez dugu hartuko) eta beherantz doan errepide irregularretik jarraitzea (**mendebaldea**) Texuko artzainen txaboletara, “**las Invernales de Texu**” izenekoak (hau hautatuko dugu).*

*0,10.- Texun lurrezko pista zabala daukagu Pandébanora joateko. Pistan ezin dira baimenik ez duten ibilgailuak sartu, baina seinale horri pertsona guztiek ez diote jaramonik egiten (guk errespetatu egingo dugu).*

*Hogeita hamar minutuz pistatik apurka-apurka gora eginez, mendebalderantz beti, **Pandébanoko txaboletara** iritsiko gara. Lasterbideren bat badago, baina ingurua ezagutzen ez badugu hobe da bidetik joatea; gainera, ez dago lasterbiderik lanik egin gabe, eta gure hankak oraindik lo daudenez, pista da berotzeko modurik onena.*



*0,50.- Pista horretatik Pandébanoko txaboletara iritsiko gara (eskuinean), haitz batzuen babesean daudenak. Txabolen artean iparralderantz doan bidezidorra aurkituko dugu, haitz horietara eramaten gaituena. Harrizko hormaren azpian bidea argi dago eta tarte batean (ekialdea) harrizko horma ikusgarria saihesten du, eta gero iparralderantz egiten du.*

*Une ona da motxilan daramagun ura edateko eta gure ibilbidea aztertzeko, **harrizko horma atzean dugula**: Iparraldea (harrizko horma eta bidezidorra). Hego-mendebaldea (gure aurrean Pandébanoko txabolak eta hona ekarri gaituen pista). Mendebaldea (Pandébano muinoa) eta Ekialdea (Sotres, gero eta urrunago).*

*Oinez jarraituko dugu (Iparraldea) gorantz egiten duen bidezidorretik. Muino eder batera iritsiko gara, eta bista zoragarriak izango ditugu. Pico Urriello (Naranjo) hego-mendebaldean ikusten hasiko gara, baina oraindik oso gutxi ikusten da. Muino horretatik apur bat behera egingo dugu **Majada de Sotarraña** izenekora.*

*1,20.- **"El Pilón eta la Majada de Sotarraña"**. Zortea badugu, askan kantinplora bete ahal izango dugu, baina urtaroaren arabera izango da hori. "Zulo" batean gaude, artzainen txabolen artean, eta oinez jarraitu beharko dugu iparralderantz doan malda belartsutik igotzeko.*

*Igoera handia da, eta sigi-sagak egin beharko ditugu, eskuinera eta ezkerrera, ahuntzen bidetik, batzuetan*

(julio, agosto y septiembre) se alarga el cierre hasta las 20,00 h. Aún así, no nos cuesta nada consultar la web, llamar a ALSA (teléfono 985 84680) o comprobar horarios en la estación al inicio de nuestra marcha.

## ITINERARIO 2: "LA FUENTE, EL PILÓN DE SOTARRAÑA" Y "PEÑA MAIN"

**0,00.-** Desde **Sotres, y provistos de agua**, podemos iniciar nuestra marcha en coche o andando. En ambos casos volveremos por la carretera que ya conocemos y 500 metros más abajo nos encontramos con una gran curva que gira a la derecha y que nos ofrece tres opciones: continuar por la misma en dirección Tielve-Puente Poncebos-Arenas (la rechazamos), tomar la pista de tierra que se dirige a Aliva (Sur) también la rechazamos o continuar por la irregular carretera descendente (**Oeste**) que baja a las cabañas de pastores de Texu "**las Invernales de Texu**" y tomamos esta opción.

**0,10.-** En Texu, sólo tenemos la opción de continuar por una ancha pista de tierra dirección Pandébano. La pista cuenta con una señalización de prohibido el paso a vehículos no autorizados que no todo el mundo respeta, pero nosotros sí lo vamos a hacer.

Treinta minutos de suave ascenso por pista, siempre dirección Oeste, nos conducen a las **Cabañas de Pandébano**. Existe algún atajo, pero si no conocemos la zona es mejor no tomarlo, además, "no hay atajo sin trabajo" y como nuestras piernas aún están dormidas, la pista es la mejor forma de entrar en calor.

**0,50.-** En nuestro discurrir por la pista llegamos a las Cabañas de Pandébano (a nuestra derecha) que se encuentran al abrigo de unas peñas. Entre las cabañas buscamos el sendero que dirección Norte nos lleve bajo esas peñas que vemos. En la misma base de la muralla de roca el camino es evidente y durante un rato (Este) busca librar el formidable muro de roca, para luego retomar el Norte.

Es un buen momento para beber agua, que transportamos en la mochila, y analizar nuestro recorrido **con la pared rocosa a nuestra espalda**: Norte (el muro de roca y el sendero que lo supera). Suroeste (delante de nosotros la Cabañas de Pandébano y la pista por la que hemos llegado). Oeste (el Collado de Pandébano) y al Este (Sotres, cada vez más lejos).

Continuamos caminando (Norte) por el sendero que ahora sí asciende, hasta llegar a un hermoso collado, con vistas fabulosas. El Pico Urriello (Naranjo) empieza a destacar al Suroeste, aunque todavía se ve muy poco. Desde este collado descendemos, un poco, a la **Majada de Sotarraña.**

**1,20.- "El Pilón y la Majada de Sotarraña"**. Si tenemos suerte podremos llenar la cantimplora en el "caño" del pilón pero todo depende de la época del año en que nos encontremos. Estamos en un "agujero" entre cabañas de pastores y debemos continuar caminando para superar la ladera herbosa que en dirección Norte nos encontramos.

Se trata de una importante subida que nos obliga a hacer zig-zags, derecha e izquierda por caminos de cabras e

hitos, a veces, no visibles. Pero nuestra tendencia es ir superando el desnivel por el centro de la vaguada.

Este es, quizás, el tramo más delicado de nuestra excursión, ya que hemos perdido referencias visuales y el desnivel por la ladera (de hierba y con roca solo al final) nos hace sudar abundantemente.

**2,00.-** Alcanzamos la loma y respiramos, la vista es magnífica. Al Norte bosque, al Suroeste el Naranjo en todo su esplendor, bajo nosotros y también dirección Sur la Majada de Sotarraña, ante nosotros y también Suroeste un bosque de hayas de cuento de hadas, y siguiendo la loma, dirección Nordeste, Peña Main (también Cabeza La Mesa o Cabeza Quemada).

Descansamos de forma obligada, bebemos agua, comemos algo y disfrutamos del paisaje, hay que hacer fotos ya que es el mejor momento de todo nuestro itinerario.

Continuamos por la loma y con desnivel al final, llegamos a la **cima de "Peña Main"**.

**2,40.- "Peña Main" (1.605 metros)** cuenta con vértice geodésico. Las vistas al Naranjo y de todo el Macizo Central son espectaculares.

Tras disfrutar de la vista, descendemos por el mismo recorrido, sin dificultad alguna.

*ondo ikusten ez diren mugarriei jarraituz. Argi izan behar dugu malda ibarraren erdialdetik igo behar dugula.*

*Hauxe da agian gure ibilbidearen tarterik delikatuena. Izan ere, ikusmen-erreferentziak galdu ditugu, eta maldaren (belarrezkoa eta harriekin amaieran) desnibelaren eraginez izerdi-pasetan ari gara.*

***2,00.-** Gora iristean arnasa hartuko dugu, bistak zoragarriak dira. Iparraldean basoa, hego-mendebaldean Naranjo bete-betean, gure azpian eta hegoalderantz Majada de Sotarraña, gure aurrean eta hego-mendebaldean maitagarrien ipuinetako pagadia, eta muinoari jarraituz, ipar-ekialdean, Peña Main (Cabeza La Mesa edo Cabeza Quemada ere esaten zaio).*

*Atseden hartu, ura edan, zerbait jan eta paisaiaz gozatuko dugu. Argazkiak egin behar ditugu, gure ibilbideko unerik onena da eta.*

*Muinotik jarraituz, amaieran malda bat igo ondoren, **"Peña Main"** izenekoaren tontorrera iritsiko gara.*

***2,40.- "Peña Main" (1.605 metro)** muinoak erpin geodesikoa du. Naranjoren eta Erdialdeko Mendigune osoaren bistak ikusgarriak dira.*

*Bistaz gozatu ondoren, bide beretik itzuliko gara, inolako zailtasunik gabe.*

**DONDE COMER Y DONDE ALOJARSE:**

• Sotres: **"Hotel Restaurante Peña Castil"** (Manuel y Mª Carmen). Mª Carmen, asturiana, vivió en Plentzia (Bizkaia). 985 945 049. www.hotel.penacastil.com y hotel@penacastil.com

• Bulnes: **"Bar Restaurante El Redondín-Casa Rafa"**. 985 84 59 45. www.elredondin.com y rafa@elredondin.com

• Arenas de Cabrales: "**Bar Cafetería San Telmo"**. Carretera Gral. s/n. Arenas de Cabrales. 985 84 65 05.

• Tresviso: "**Bar Restaurante La Taberna"**. 942 74 44 44 - 942 74 42 71.

**OTRAS EXCURSIONES:**

• Sotres, merece la pena perderse entre sus calles y hablar con sus gentes. Para comprar Queso de Cabrales y Sidra hablar con Manuel (Hotel Peña Castil).

• Tresviso, por carretera desde Sotres. En el Bar Restaurante "La Taberna" se vende directamente el Queso Picón, campeón de decenas de concursos.

• Arenas de Cabrales, con sus bares, restaurantes y tiendas de souvenirs en la misma carretera.

**BIBLIOGRAFÍA:**

• "Los que se echaron al monte" de Isidro Cicero.

• "Del mito a la historia. Guerrilleros, maquis y huidos en los montes de Cantabria" de Andrés Gómez. Universidad de Cantabria. 2008.

• Mapa Picos de Europa: Miguel A. Adrados.

• Internet: son múltiples las referencias a "La Canal del Tejo" o el ascenso a "Peña Main" y cualquiera de ellas son válidas. Si bien, los itinerarios descritos se realizan siempre previamente por el autor del artículo con las referencias de tiempo a un paso moderado.

***JATEKO ETA LO EGITEKO LEKUAK:***

*• Sotres: "Hotel Restaurante Peña Castil" (Manuel eta Mª Carmen). Mª Carmen, asturiarra, Plentzian bizi izan zen (Bizkaia). 985 945 049. www.hotel.penacastil.com eta hotel@penacastil.com*

*• Bulnes: "Bar Restaurante El Redondín-Casa Rafa". 985 84 59 45. www.elredondin.com eta rafa@elredondin.com*

*• Arenas de Cabrales: "Bar Cafetería San Telmo". Errepide nagusia. z/g. Arenas de Cabrales. 985 84 65 05.*

*• Tresviso: "Bar Restaurante La Taberna". 942 74 44 44 - 942 74 42 71.*

***BESTE IBILBIDE BATZUK:***

*• Sotres, merezi du kaleetan galtzea eta bertakoekin hitz egitea. Cabralesgo gazta eta sagardoa erosteko, hitz egin Manuelekin (Hotel Peña Castil).*

*• Tresviso, errepidez Sotresetik. "La Taberna" taberna-jatetxean hainbat lehiaketa irabazi dituen Picón gazta zuzenean saltzen da.*

*• Arenas de Cabrales, taberna, jatetxe eta denda ugari ditu errepidean bertan.*

***BIBLIOGRAFIA:***

*• "Los que se echaron al monte", Isidro Cicero.*

*• "Del mito a la historia. Guerrilleros, maquis y huidos en los montes de Cantabria", Andrés Gómez. Kantabriako Unibertsitatea. 2008.*

*• Mapa Picos de Europa: Miguel A. Adrados.*

*• Internet: aipamen asko egiten zaizkie "La Canal del Tejo" edo "Peña Main"-erako igoerari, eta edozein baliagarria da. Deskribatutako ibilbideak aurretik idazleak egin ditu, eta emandako denbora-erreferentziak pauso moderatua erabiliz hartutakoak dira.*

# *ATZERRITARTASUNAREN LEGEAREN ERALDAKETA: 2/2009 LEGEA, ABENDUAREN 11KOA*

# REFORMA DE LA LEY DE EXTRANJERÍA: LEY 2/2009, DE 11 DE DICIEMBRE

***Joan den martxoaren 1ean, gure Bazkuneko Ekitaldien Aretoan, Legelarien Euskal Kontseiluak antolatutako jardunaldi interesgarri hau egin zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Sailaren lankidetzaz, José María Pey González jn.aren zuzendaritzapean. Jardunaldi horretan, joan den urtearen amaieran 2/2009 Lege Organikoa onetsi eta gero atzerritartasunaren legerian egindako eraldaketa garrantzitsuaren berri eman zen.***

**El pasado 1 de marzo se celebró en el Salón de Actos de nuestro Colegio esta interesante jornada organizada por el Consejo Vasco de la Abogacía, con la colaboración de Departamento de Justicia y Administración de Justicia del Gobierno Vasco, bajo la dirección del compañero D. Jose María Pey González, en la que se dio a conocer la importante reforma operada en la legislación de extranjería, tras la aprobación, a finales del pasado año, de la Ley Orgánica 2/2009.**



**Juan Luis Ibarra, Josefa Gutiérrez Mangas y Jose Mª Pey**

*Jardunaldiaren hasieran zuzendariak hartu zuen hitza. Eraldaketaren ikuspegi orokorra eman zuen, eraldaketaren beharrizanari eta aukerari buruzko ariketa kritikoa eginez. Lege berrian aurreko Legeko 71 artikuluetatik 50 berrikusi dira eta 2000. urtean indarreko Atzerritartasunaren Legea onetsi zenetik egindako eraldaketa garrantzitsuena da. Egindako aldaketek esan izan dena baino ondorio askoz handiagoak dituzte.*

***ERALDAKETA HAU BEHARREZKOA ZEN ETA AZKEN URTEETAKO JURUSPRUDENTZIA-DOKTRINA KONTUAN HARTU DU***

*Ildo horretatik, hizlariaren esanetan, eraldaketa hau beharrezkoa zen, azken urteetako jurusprudentzia-doktrina gehitu da, eta Espainiako legeriara Europako zenbait zuzentarau ekarri ditu. Hain zuzen ere, horietako batzuen eraginez, Espainiako estatuari zehapen batzuk ezarri zaizkio.*

*Konstituzio-doktrina gehitzeari dagokionez, 2/2009 Legeak Konstituzio Auzitegiaren 236/207 eta 259/2007 epaietan ezarritako doktrina gehitu nahi du, baina hizla-*

**NOS ENCONTRAMOS ANTE UNA REFORMA NECESARIA QUE INCORPORA LA DOCTRINA JURISPRUDENCIAL DE LOS ÚLTIMOS AÑOS**

La jornada dio comienzo con la intervención de su director, quien facilitó una visión general de la reforma, en un ejercicio crítico sobre su necesidad y oportunidad. La Ley, que conlleva la revisión de 50 de los 71 artículos de la Ley, supone, a su juicio, la más importante de las reformas que se han llevado a cabo tras la aprobación de la vigente Ley de Extranjería en el año 2000, conteniendo modificaciones de mucho mayor calado del que se ha venido transmitiendo.

En este sentido, señaló, nos encontramos ante una reforma necesaria que incorpora la doctrina jurisprudencial de los últimos años y traspone a la legislación española una serie de Directivas europeas, algunas de las cuales habían dado ya lugar a sanciones para el estado español.

En lo que se refiere a la incorporación de la doctrina constitucional, la Ley 2/2009, pretende la incorporación de la doctrina sentada en las Sentencias 236/207 y

259/2007 del Tribunal Constitucional, si bien, a juicio del ponente el texto definitivo no ha sido coherente con la doctrina del TC y no podrá evitar posibles interpretaciones de dudosa constitucionalidad, en particular, en lo que se refiere a la regulación del derecho a la educación y el acceso a becas y ayudas, que sigue discriminando a los extranjeros no residentes mayores de edad, obviando la vinculación entre educación y exclusión social.

En lo que respecta a la trasposición del Derecho comunitario, la reforma pretende acomodar nuestro ordenamiento jurídico a las Directivas europeas sobre inmigración pendientes de trasposición, entre las que destacan la Directiva de residentes de larga duración y la Directiva de retorno. Junto a estas, se encontraban también pendientes de trasponer la 2003/110/CE, la 2003/109/CE, la 2004/81/CE, la 2004/82/CE, la 2004/114/CE, la 2005/71/CE, la 2009/50/CE, todas ellas del Consejo; la 2008/115/CEE, del Parlamento Europeo y la 2009/52/CE, del Parlamento y del Consejo.

**QUE ESTOS DERECHOS (REUNIÓN, ASOCIACIÓN, MANIFESTACIÓN, SINDICACIÓN Y HUELGA) QUEDAN REGULADOS EXACTAMENTE IGUAL PARA LOS EXTRANJEROS EN SITUACIÓN IRREGULAR QUE PARA LOS QUE TIENEN RESIDENCIA**

Con relación a esta adaptación, el ponente denunció la utilización que de esta necesidad se ha hecho por parte de los poderes públicos, como pretexto para elaborar una regulación contradictoria con el régimen jurídico desarrollado por el Derecho judicial de extranjería en los últimos años en materia de arraigo social, régimen sancionador y normalización de los procedimientos administrativos de extranjería, en lugar de como medio para profundizar en el camino trazado por la jurisprudencia de nuestros tribunales.

Tras esta intervención inicial, y en línea con la exposición del señor Pey, tomó la palabra D. Antonio Zapata Navarro, Profesor de Derecho Constitucional de la Universidad de Granada, quien profundizó en las modificaciones introducidas por la reforma en el régimen de Derechos y Libertades de los extranjeros, siempre insistiendo en la necesidad de abordar la regulación de los derechos de las personas migrantes desde una perspectiva global, dada la transversalidad del fenómeno migratorio.

Bajo ese punto de vista, la reforma recoge la doctrina dada por las Sentencias 236/2007 y 259/2007 de nuestro Tribunal Constitucional, y que vienen a sancionar la restricción en estos derechos operada en la Ley 8/2000, al prohibir el ejercicio de los derechos de reunión, manifestación, asociación, sindicación y huelga, a los inmigrantes en situación irregular, por considerar que son derechos inherentes a la dignidad humana y que por tanto no pueden subordinarse a la obtención de un permiso de trabajo. Consecuencia de ello, es que estos derechos quedan regulados exactamente igual para los extranjeros en situación irregular que para los que tienen residencia y, por tanto, igual que para los ciudadanos extranjeros.

*riaren esanetan, behin betiko testua ez da koherentea izan Karen doktrinarekin eta ezin izango ditu saihestu zalantzazko konstituziotasuna duten balizko interpretazioak, zehatz esanda, hezkuntzarako eskubidearen eta beka eta laguntzetarako sarbidearen arauketari dagokienez. Hain zuzen ere, azken horiei lotuta adinez nagusi diren atzerritar ez-egoiliarrak baztertu egiten dira, hezkuntzaren eta gizarte-bazterketaren arteko lotura alde batera utzita.*

*Europako Zuzenbidearen transposizioari dagokionez, eraldaketaren bidez gure antolamendu juridikoa oraindik transposiziorik izan ez duten immigrazioari buruzko Europako zuzentarauetara egokitu nahi da. Besteak beste, aipatzekoak dira iraupen luzeko egoiliarren zuzentaraua eta itzulera zuzentaraua. Horiekin batera, transposizioa egin gabe zeukaten hurrengo hauek ere: 2003/110/CE, 2003/109/CE, 2004/81/CE, 2004/82/CE, 2004/114/CE, 2005/71/CE, 2009/50/CE, guztiak Kontseiluarenak; 2008/115/CEE, Europako Parlamentuarena, eta 2009/52/CE, Parlamentuarena eta Kontseiluarena.*

*Egokitzapen honi dagokionez, hizlariak agintari publikoek beharrizan horren inguruan egin duten erabilera salatu zuen. Hain zuzen ere, atzerritarren zuzenbide judizialak azken urteetan gizarte-errotzeari, zehapen-araubideari eta atzerritarren administrazio-prozeduren normalizazioari lotuta garatutako araubide juridikoarekin alderatuta kontraesantsua den arauketa egin dute, gure auzitegietako jurisprudentziak abiatutako bidea sakondu beharrean.*

***ESKUBIDE HORIEK (BILTZEKO, KALE-AGERRALDIAK EGITEKO, ELKARTZEKO, SINDIKATZEKO ETA GREBA EGITEKO ESKUBIDEAK) BERDIN ARAUTUTA DAUDE EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ATZERRITARRENTZAT ZEIN EGOITZA DUTENENTZAT***

*Hasierako partehartze horren ostean, Pey jaunaren azalpenaren ildotik, Antonio Zapata Navarro Granadako Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle jaunak hitza hartu zuen. Eraldaketak atzerritarren eskubide eta askatasunen araubidean egindako aldaketak sakondu zituen, betiere, pertsona migratzaileen eskubideak ikuspegi orokorretik jorratzeko beharrizana azpimarratuz, migrazio-fenomenoaren zeharkakotasuna kontuan hartuta.*

*Ikuspuntu honetatik, eraldaketan gure Konstituzio Auzitegiaren 236/2007 eta 259/2007 epaiek emandako doktrina biltzen du. Epai horiek 8/2000 Legean eskubide horiei dagokienez egindako murrizketa zehatu da, biltzeko, kale-agerraldiak egiteko, elkartzeko, sindikatzeko eta greba egiteko eskubideak debekatu baitzaizkie egoera irregularrean dauden immigranteei, eskubide horiei giza duintasunari datxezkiola pentsatzen delako eta, beraz, ezin direlako egon lan-baimen bat lortzearen menpe. Horren ondorioz, eskubide horiek berdin araututa daude egoera irregularrean dauden atzerritarrentzat*

*zein egoitza dutenentzat, baita atzerriko herritarrentzat ere.*

*Hala ere, etxebizitzarako eskubidean hartutako konponbidea desberdina da. Hain zuzen ere, atzerritarra naziokoekin parekatzea ez da gertatzen atzerritarrek egoitza-baimena dutenean, iraupen luzeko egoitza-baimena eskatzen da. Modu horretan, puntu honetan, eraldaketan legez egoitza duten atzerritar egoiliarren eskubide-berdintasuna urratu egiten da, izan ere, egoera-berdintasunean egoteko, 5 urteko egonaldi erregularra eskatzen baita. Hizlariaren ustez epe hori gehiegizkoa da, eta epea gai garrantzitsuagoetarako eskatu beharko litzateke, hala nola, boto-eskubiderako.*



**Antonio Zapata**

*Bestalde, hezkuntzarako eskubideari dagokionez, legeak derrigorrezko hezkuntzaren ostekorako eskubidea aitortu die adin txikikoei, kasuan kasuko titulazioak eta bekak barne hartuta, eta haur hezkuntza desagertu egin da.*

***LEGEAK DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN OSTEKORAKO ESKUBIDEA AITORTU DIE ADIN TXIKIKOEI***

*Arratsaldeko saioan, lehenengo eta behin, administrazio-egoeren eta lan-araubideen eraldaketa aztertu zen. Margarita Palos Nadas UIBko Zuzenbide Fakultateko irakasleak eta Isabel Gómez Reyes Alacanteko Abokatuen Bazkunak CGAEn duen Atzerritarren Azpibatzordeko kideak legeak esparru horretan dituen berrikuntza nagusiak azpimarratu zituzten, arlo horren barruko kasu praktiko batzuk jorratuz.*

Distinta es, sin embargo, la solución adoptada en lo relativo al derecho a la vivienda, puesto que la equiparación del extranjero con los nacionales, no se produce cuando estos poseen permiso de residencia, sino que se requiere una autorización de residencia de larga duración. De este modo, la reforma supone en este punto, una quiebra en la igualdad de derecho de los extranjeros residentes legalmente, pues supone exigir, para estar en igualdad de condiciones, un periodo de estancia regular de 5 años, exigencia que, a juicio del ponente, resulta excesiva, debiendo ésta reservarse a cuestiones de mayor trascendencia como, por ejemplo, el derecho al voto.

Por otra parte, y en lo relativo al derecho a la educación, la ley reconoce ahora el derecho a la educación post-obligatoria a los menores de edad, incluyendo las titulaciones y becas correspondientes, y desaparece la educación infantil.

En la sesión de la tarde se analizó, en primer lugar, la reforma de las situaciones administrativas y de régimen laboral, en una intervención conjunta en la que D.ª Margarita Palos Nadas, Profesora de la Facultad de Derecho de la UIB, y D.ª Isabel Gómez Reyes, Vocal del Colegio de Abogados de Alicante ante la Subcomisión de Extranjería del CGAE, destacaron las principales novedades de la ley en este ámbito, abordando asimismo algunos casos prácticos ya dentro de la casuística que ofrece la materia.

En cuanto a la Ley, ambas coincidieron en que ésta ofrece, tanto aspectos positivos, como la importancia que, al menos desde un punto de vista teórico, se da a la integración de los extranjeros, como negativos, entre los que señalaron los interrogantes que plantea la pendencia de su desarrollo reglamentario y la incertidumbre sembrada en torno al concepto de residente de larga duración, fruto esta última, de una mala incorporación de la Directiva.

